

JAION ZIRIKUSEk AURKEZTEN DU: UDAL ZIRKOA SALDUTA!

Lakaxitaren okupaziotik 10 urtebetetzen diren hontan, Jaion Zirikus Bidasoaldera iritsi da...

Erle Lakaxitianak, jostalariak, jatorrak, euskaltzaleak eta zirikatzaileak desfilearen aurrean dihoaz. Lakaxitaren antzerako eremuetan, non natura eta sormena batzen diren, loreen nektarra xurgatzen dute erleek, egitasmo herrikoiak eta sortzaileak eraikitzeke loreztia erregai bilakatuz. Erleek elikadura burujabetza eta kulturaren autogestioa bermatzen dituzten ekimen aurrerakoiak barreiatzen dituzte Bidasoalde osoan zehar Herri Ziztaden bitartez. Azken hauek herritarrontzako ezitxuak diren neurrian, mingotsak dira udalarentzat.

Jarraian soka lasaian dabilzan funanbuluak ditugu etxe kaleratzearen amildegia oinen azpian dutela. Etorquinek, etxe barruan eta kanpoan lan egiten duten emakumeek, lanpostu ziztrinak edo batere lanposturik ez dituzten langileek, gazteek eta abar luze batek esku joko trebeak burutzen dituzte hilabete bukaerara iritsi ahal izateko. Emakume Indartsuak hipoteka altxatzen du esku batekin eta argindarren fakturak bestearekin. Aspaldi zintzilikatu zituen udalak jendarte eta kultur politikak enpresa pribatuen trapezioan eta herritar askok oreka galdu du, gutxi batzuen etekinen amildegian eroriz.

Liztor Oiassoatikoek irekitzen dute udalaren desfilea. Herri Ziztadak ez dituzte maite Liztor Oiassoatikoek, erakunderik gabe zenbat gauza egin daitekeen erakusten dutelako.

Udal Aztiak diru publikoa ezker eskuarekin hartzen du, txisteran sartu, eta eskuineko eskuan agertzen da magiaren poderioz pribatua bilakatuz. Ikustezintasunaren dohaina ere harro-harro erakusten du eta Irunen dauden ehunka etxe hutsen inguruko datuak desagerrarazten ditu, makiltxo magikoari kolpe bat emanez. Horrela, irundarronak diren eremu berdeak Porlan Deunari eskaintzen jarraituko dizkio, etxebizitza berriak eraikitzeke. Berarekin batera Burbuila Higiezina puztu eta puztu egiten da espekulazioarekin lehertu baino lehen, porlan tanttekin dena zipriztinduz.

Udal Pizti Hezitzaileak, zigorrarekin, Gizadiruzko Ordenantza ezarri nahi die piztiei... baina hauek askatasuna eta aniztasunaren zaleak dira, menperatzeko zailak beraz!

Hiru Buruko Munstruo Santanikoak agintzen du Bidasoaldeko Udalaren desfilean: Irungo eta Hondarribiko alkateen buruak eta Jaizkibelgo sabelaren ura xurgatzeko prest dagoen Txinzer elefantearen burua ditu bihozgabeko munstruok. Hiru buru baditu ere, TTIP zer den ez daki.

Eta horren atzean, aurrean eta ondoan, azpian eta gainean, Porlan Deuna daukagu. Irundarron arnaguneak ziren eremu berde gehienak jan ondoren, Txenperenea, Zubieta, Gaintzurizketa, Ikust Alaia eta Blaiia irensteko irrikitan dago pizti ase ezin hau, porlana barra-barra libratzeko, eta Irun Arimarik Gabeko Porlanezko Basamortua bilakatzeke.

Lehenengo heriotz jautsian, Hegoaldeko Ingurubidea eta autopistarekiko loturekin kotxeei ireki nahi die bidea oinezkoen irrisgarritasuna zailtzeko, auzokideen lasaitasunaren amaiera litzatekeen eta lurraldea bitan puskatuko lukeen hesi gaindiezina altxatuz.

Heriotz jauzi bikoitzean AHTa Irunera ekarri nahi du, gaurko trenbide eremua desagerraraztearekin batera Gaitzurizketan plataforma logistiokoa agerrarazteko hango paradisua porlan azpian itoz.

Eta heriotz jauzi hirukoitzez, Zubietako baserri lur aberatsa Miramon parke nanoteknologikoaz ordezkatu nahi du.

Liztor Oiassoatikoak aspaldi saldu zuen Udal Zirkoa eta Liztor Espainiensis honen jaun ta jabe egin zen. Honek duen abilezi ezagunena errepresioa bara bara hedatzea denez, harro harro erakusten ditu lege joku bikainak. Hauen emaitza, euskal presoan funtsezko eskubideen ukazioa, Askapena bezalako herri mugimenduen aurkako zigor krudel funtsagabeak, eta Hazia bezalako kultur elkarten itxieraren mehatxua ditugularik.